



**36/2002 GOMENDIOA, AZAROAREN 27KOA, MALLABIKO UDALARI
EGINA, KAUTELAZKO NEURRI GISA, HERRI HORRETAKO AUZO
BATEAN GARATZEN DEN ZABORTEGI JARDUERA IXTEKO AGINDUA
EMAN DEZAN, ETA HAREN TITULARRARI KALTETUTAKO
ONDASUNAK LEHENGORA DITZALA ESKA DIEZAION, NAHIZ ETA,
BEHARREZKOA BADA, ZIGORTZEKO ESPEDIENTE BAT HASI.**

Aurrekariak

1. Mallabiko herritar batek erakunde honetara jo zuen, herri horretako auzo batean dagoen zabortegi batek -ustez, legez kanpoko- sortutako eragozpenengatik.

Zehazki, kexagileak zioenez, zabortegi horretan maiz zaborra erretzen zuten, eta eragozpen larriak sortzen zizkien inguruan bizi diren auzoei.

Gainera, gertakari horiek udal horri askotan salatu bazizkion ere, ez omen zen inolako neurririk hartu arazo hori konpontzeko.

2. Erakunde honek informazio hau eskatu zion udalari: ea zabortegiak bazuen udalaren nahitaezko baimena, eta ea zein jarduera burutu ziren auzokoek salaturiko arazoa behin betiko konpon zedin. Gure eskaerari erantzunez, alkatetza horrek hauxe adierazi zigun, hitzez hitz, interesdunak egindako salaketaren ondorioz burututako jardueren gainean:

"El vecino de Mallabia al que se refiere su escrito presentó queja ante esta institución con fecha de registro de entradas (...), señalando la existencia de un vertedero ilegal en la zona del barrio (...) y solicitando la adopción de medidas.

El Ayuntamiento de Mallabia, con fecha de registro de entradas 20 de diciembre de 2000, recibe escrito del Departamento de Medio Ambiente y Acción Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se solicita la remisión de relación de vertederos ilegales para proceder a su recuperación, a lo que este Ayuntamiento responde remitiendo a dicho ente Foral, con fecha 26 de diciembre de 2000, listado con focos de vertido y además copia de la queja formulada por (...) en relación con el foco de vertido del barrio (...), además y aprovechando la visita de inspección que estaban realizando técnicos del Departamento de medio Ambiente del Gobierno Vasco, gestión de residuos, por esas fechas (...) también se les pone en antecedentes del caso. Comunicándose con fecha



26 de febrero a (...) las medidas urgentes que el Ayuntamiento había adoptado en su momento..."

3. Udalaren txostenaren edukia kontuan izanik, hasieran Bizkaiko Foru Aldundiari galdetu genion ea gai horren gainean zein jarduera burutzeko asmoa zuen, halakorik egitekotan. Zabortegei jarduera horretan ez zuela esku hartuko adierazi zigun, urbanizatu ezineko lurzoruan dagoelako. Azaroaren 25eko 27/1983 Legeak -Autonomia Erkidegoko erakunde komunien eta lurralde historikoetako foru erakundeen arteko harremani buruzkoak- 7.c.6 artikuluan ezartzen duenez, foru aldundiek aginpidea dute etxebizitzetarako hiri-lurrean kokatutako jardueretan esku hartzeko.
4. Horregatik, Arartekoak laguntza eskatu zion Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko Ingurumen Sailburuordetzari. Horrela, zaborra isuri eta erretzea dela-eta, sail horretako zerbitzu teknikoek 2002ko urriaren 30ean Mallabiko (...) auzoan egindako ikusketaren ondoko txostena aztertu ahal izan du erakunde honek orain dela gutxi. Honela dio txostenak:

"Habiendosé recibido un escrito por D. (...), en la cual denuncia que entre los caseríos (...) del Bº de (...) se vienen realizando vertido de residuos y posterior quema de los mismos, además del perjuicio que ocasiona a los habitantes de la zona y el medio ambiente.

El día 30 de octubre de 2002 se gira inspección a dicha ubicación en aras de verificar la denuncia formulada por D. (...).

Una vez en dicha ubicación, se observa que se trata del vertedero incontrolado perteneciente a (...), al cual se realizó una visita de inspección el 15 de febrero de 2001 (...).

Se constata que ha continuado vertiendo residuos de demolición y construcción, así como realizando quemas incontroladas, supuestamente para deshacerse de residuos plásticos, de madera y otros residuos combustibles. Así mismo se observa pequeños cúmulos de residuos metálicos, algunos obtenidos previa quema del material no metálico adherido.

Dicha parcela se usa como depósito temporal de contenedores, uno de ellos con residuos de madera. Sigue en el lugar el autobús abandonado



que se mencionaba en la anterior visita de inspección, supuestamente utilizado como caseta.

Se ha elevado la cota en 2 metros aproximadamente en toda la superficie desde la última visita.

El talud que mira hacia la regata tiene una pendiente excesiva (mayor de 45°). Se observa que en el pie del talud, en la orilla de la regata, se han colocado mallazo para forjados con el fin de contener los residuos vertidos. También se han colocado elementos de contención en la parte SE contra el arbolado existente con el mismo objetivo. En más de un punto dicha 'contención' ha cedido e invade la regata, provocando un estrechamiento del cauce." (sic)

5. Txosten horretan ondorio hau ateratzen da: kontrolik gabeko zabortegi jarduera hori ingurumen-arazo larriak sortzen ari dela inguruan, eta udal agintaritzak lehenbailehen esku hartu behar duela, ingurumeneko kaltea zabal dadin galarazteko, jardueraren titularrari zabortegia berehala ixteko eskatzeko eta kaltetutako ondasunak lehengoratzeko behar diren neurriak hartzeko.

Gogoetak

1. Udalaren nahitaezko baimenik ez duten jardueri dagokienez, Arartekoa bat dator jurisprudentziak behin eta berriz adierazi duenarekin. Horrela, Auzitegi Gorenak legez kanpokotzat jo ditu baimenik gabeko jarduerak, eta zuzenbidearen araberkotzat jo du udal agintaritzak halako jarduerak ixtea, kautelazko neurri gisa, harik eta egoera hori legeztatzen den arte, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko Araudian ezarritako prozedurari jarraiki.

Adibide moduan, eta guztiz argia delako, Auzitegi Gorenak 1988ko ekainaren 10ean emandako Epaia ekarriko dugu hona (Ar. 4195):

"...la apertura clandestina de establecimientos comerciales e industriales o el ejercicio sin la necesaria licencia de actividades incluidas en el Reglamento de 30 de noviembre de 1961 obliga a adoptar, de plano y con efectividad inmediata, la medida cautelar de suspender la continuación de las obras, clausurar el establecimiento o paralizar la actividad, con el fin de evitar que se prolongue en el tiempo la posible transgresión de los



límites impuestos por exigencias de la convivencia social, hasta la obtención de la oportuna licencia que garantice la inexistencia de infracciones o la adopción de las medidas necesarias para corregirlas."

Irizpide hori bera azaltzen da Auzitegi Gorenaren beste epai hauetan ere: 1996ko azaroaren 5ekoan (RJ 1996\8271); 1998ko ekainaren 26koan (RJ 1998\5033)...

Gainera, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak adierazten duenez, jarduera bat itxeko agintzean, ez da gauza bera baimena duen jarduera izatea edo baimenik gabeko establezimendu publikoa. Adibide gisa, eta hau ere argigarria delakoan, Auzitegi Gorenak urriaren 4an emandako Epaia aipatuko dugu (Ar. 7402):

"... A la hora de determinar el procedimiento a seguir para acordar la clausura de actividades desarrolladas sin licencia, habrá que destacar el diferente sentido que tal clausura tiene según la actividad se esté llevando a cabo con o sin licencia. En el primer supuesto, al existir licencia, es decir, un control anterior de la Administración, resulta justificado el seguimiento de los trámites en los arts. 36 y siguientes del Reglamento de 30 de noviembre de 1961. En el segundo -carencia de licencia- al faltar el control previo de la Administración, la clausura podrá acordarse sin más que acreditar la inexistencia de licencia con la audiencia del interesado y prevista en el art. 91 LPA y art. 105 c) de la Constitución. La audiencia será así imprescindible, salvo naturalmente el caso de existencia de peligro, etc."

Irizpide bera agertzen da, halaber, Auzitegi Gorenaren 1990ko otsailaren 21eko Epaian (Ar. 1507) eta 1988ko otsailaren 1ekoan (Ar. 669), besteak beste.

2. Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoan, otsailaren 27ko 3/1998 Legeak - Euskal Herriko Ingurumena Babestekoak- 65. artikuluan xedaturiko arauak ezarri behar dira kasu honetan. Hara zer agintzen duen baimenik gabeko jardueren gainean:

"Dagozkien zigorren kalterik gabe, alkateak jarduera batek beharrezko lizentziarik gabe funtzionatzen duela jakiten duenean, honako iharduketa hauek burutuko ditu:



- a. *Jarduera legeztatzeke modukoa baldin bada, bere titularra errekerituko du egoera arauen barruan jar dezan. Horretarako epea emango zaio, eta epea, behar bezala justifikatutako ohiz kanpoko kasuetan izan ezik, sei hilabetekoa baino luzeagoa ez da izango. Gainera, jarduera itxi egin ahal izango da egoerak hori egokia dela erakusten badu, interesatuari entzun ondoren.*
- b. *Indarrean dauden sektoreko arauak edo dagozkion udal-ordenantzak betetzen ez direlako jarduera legeztatzerik ez badago, itxi egin behar da, interesatuari entzun ondoren."*

Horrez gain, lege horren 105. artikuluan zehazten da noiz eta nolako kautelazko neurriak hartu behar diren:

"Salbuespenez, eta zigor-espeditentea irekitzeari hasiera eman aurretik, administrazio publikoek zigor-izaerarik ez duten ondoko kautelazko neurriak hartu ahal izango dituzte edo lege honetan arau-hauste gisa tipifikatutako edozein ekintzaren ustezko arduradunari neurri horiek harrarazi ahal izango dizkiote:

- a. *Lanak edo jarduerak bertan behera uztea*
- b. *Aparatuak, ekipoak edo ibilgailuak prezintatzea*
- c. *Ingurugiroko kaltea zabal ez dadin zuzentze, segurtasun edo kontrolerako beste edozein neurri."*

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

36/2002 GOMENDIOA, azaroaren 27koa, Mallabiko udalari egina

Kautelazko neurri gisa, Mallabiko (...) auzoan garatzen ari den zabortegei jarduera ixteko agindua eman dezala, eta jarduera horren titularrari kaltetutako ondasunak lehengoratzeko eska diezaiola, nahiz eta, beharrezkoa bada, zigortzeko espeditente bat hasi.